

BETION TELELAGUNTZA (24 ORDUKO URRUNEKO ARRETA)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

BETION TELELAGUNTZA (24 ORDUKO URRUNEKO ARRETA)

Mendekotasuna duen 65+ pertsona > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Telealarma bat da, erabiltzaileei aukera ematen diena arreta-zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan. Telelaguntzako langileek, behar izanez gero, eskatutako arreta berehala jasotzeko aukera ematen dute ([1.6 fitxa](#)). Hori guztia egiteko, etxean terminal bat eta erabiltzaileak eraman beharreko sakagailu edo domina bat jartzen dira. Erabiltzailearekiko kontaktua telefonogunetik (edo urruneko arreta-taldetik) aktiba daiteke, arrisku-egoera bat dagoela pentsatzeko arrazoiak badaude. Zerbitzuari buruzko informazioa ematen du, jarraipenaren balorazioa egiten du eta, hala badagokio, emozioei laguntzen die. Esteka honetan kontsulta dezakezu [erabiltzailearen gida](#).

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Mendekotasun onartua duten pertsonak (I., II, III. Graduak- 25 puntu edo gehiago Mendekotasuna Baloratzeko Baremoan), bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak, mendekotasun arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonak, edo gizartetik isolatzeko arriskuan dauden pertsonak.

I. gradua - Mendetasun arina

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean,

gutxienez **egunean behin**, edo autonomia pertsonalerako aldizkako edo mugatutako laguntza-premiak dituenen.

II. gradua - Mendetasun larria.

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, **egunean bizpahiru aldiz**, baina ez duenean zaintzaile baten etengabeko laguntza nahi edo ez duenean laguntza zabalik behar bere autonomia pertsonalerako.

III. gradua - Mendetasun oso larria

Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera egiteko **egunean hainbat aldiz**, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentensoriala erabat galdua duenez, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Pertsonak egoera hauetakoren batean egon behar du:

- 75 urte edo gehiago izatea eta bakarrik bizitzea, edo
- 65 urte baino gehiago izatea eta mendekotasun arriskuan egotea (gutxienez 23 puntu balorazio baremoan), edo
- Mendekotasun onartua (I., II. eta III. graduak), edo
- Gizarte-isolamenduaren arriskuan egotea, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazioaren arabera.

Gainera, etxean telefono-linea bat izan beharko du, eta ekipoa behar bezala erabiltzeko gaitasuna (berak edo zaintzaileak).

Zenbat balio du zerbitzuak?

Telelaguntza-zerbitzuaren **kostua hilean 4 euro** da 2024an. Salbuespenak edo murrizketak ezartzen dira, bizikidetzako unitatearen diru-sarreraren arabera.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Telelaguntza Zerbitzua ematea Eusko Jaurlaritzaren ardura da.

Non eska dezaket zerbitzua?

- BetiOn Telelaguntza Zerbitzuaren ataria: [Web orrira joan](#)
- Zure auzo, udalerri edo eskualdeko oinarritzko gizarte zerbitzuak.
- Aurrez-aurre [Zuzenean](#) bulegoetan.
- Correos.

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude eta gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan

egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta zerbitzu hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)